

**LIZARRUSTIKO OSTATUA (ATERPETXEA ETA TABERNA)
ERABILTZEA ETA KUDEATZEA:
ARRETA EMATEKO ETA HURA DINAMIZATZEKO
KONTRATUA ESLEITZEKO KLAUSULA TEKNIKOEN PLEGUA
(ARALARKO PARKE NATURALA)**

2025/01 KONTRATAZIO ESPEDIENTEA

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Plegu honen helburua LIZARRUSTIKO ATERPETXEA (ATERPETXEA ETA TABERNA) ERABILTZEKO ETA KUDEATZEKO (ARRETA EMATEKO ETA HURA DINAMIZATZEKO) KONTRATUAREN ESLEIPENEAN jarraituko diren baldintza teknikoak zehaztea da. Ostatua Aralarko natura-parkean (Ataunen) den, Lizarrustiko parketxean dago.

Kontratuan bildutako jarduerak gauzatzeko, esleipendunak Lizarrustiko ostatua (aterpetxea eta taberna), hango altzariak eta gainerakoak erabili ahal izango ditu, kontratuak irauten duen epean.

2.- OSTATUKO INSTALAZIOEN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA DESKRIBAPENA

Lizarrustiko ostatua Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa da eta Aralar natura-parkean (Ataunen) dagoen Lizarrustiko parketxean da. Parketxearen erabilera Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari laga zitzaion 2016ko abuztuaren 15ean.

– PARKETXEKO ERAIKINAK honako hauek dauzka:

- Erdisotoa, biltegi aretoarekin eta biltegia eta garbigailua jartzeko tarte batekin; kanpotik zuzenean sartzen da.

- Solairu nagusia: atondoa, igogailua, komunak, sukaldea eta biltegia (komunekin), taberna eta jantokia (40 lagunentzako lekuarekin) eta natura parkeari buruzko bi erakusketa eta interpretazio areto eta ostaturen parte moduan erabil daitekeen gela hainbat ohatzerekin.

- Lehen solairua: logela komun bat, hainbat ohatzerekin; bi bainugela, komun eta dutxekin; egokitutako logela bat, bainugelarekin; eta etxebizitza bereizi bat (aretoa, bi logela eta bainugela dauzka). Solairu horretan 40 metro koadro inguruko terraza bat dago.

- 25 kilowatteko ekipo elektrogeno bat badago, turbina ondo dabilenean martxan jartzen denean.

Hori guztia behar bezala urbanizatuta eta hornituta; izan ere, lokalak badauzka argindarra, ur hotz eta beroa, sukaldarako eta erregailurako gasa, zoru erradiatzaileko berokuntza sistema, altzariak eta sukaldeko tresnak. Erakusketa eta interpretazio aretoan ikus-entzunezko materiala eta material grafikoa dago.

- ATXIKITAKO INSTALAZIOAK hauek dira:

- Aparkalekua, 47 ibilgailu eta bi autobusentzako, behar bezala egokitua.

- Propano gasaren instalazioa eta depositu autonomoa, Repsol-Butano SA enpresarekin kontratatua.

- Inguruko BESTE INSTALAZIO batzuk:

- Argindar instalazio autonomoa: 25 kilowatteko sorgailu hidraulikoa, tutueria, eta transformagailuak; instalazioak parketxearen eraikina hornitzen du. Instalazioa Gipuzkoako Foru Aldudiarena da.

- Ur instalazioa: ura Lareoko urtegitik hartzen da eta klorazio automatikoko depositu bat dago; Lizarrustiko Etxe Berria ere hornitzen du urez. Gipuzkoako Foru Aldudiarena da.

3.- KONTRATUAREN HELBURUA ETA EZAUGARRIAK

Esleitu beharreko kontratuaren helburu nagusia ostatura doazen bisitariei haren erabilpena ahalbidetzea eta ostatura dinamizatzea da. Horretarako, ostaturak eta parketxeak dituen baliabideak erabili ahalko dira.

Ondorioz, jarduera guztiak xede hauetara zuzenduko dira:

Banakoei zein taldeei, behar bezalako baldintzetan, ostaturak hartzea eta elikatzea ahalbidetzeraz.

Lizarrustiko ostaturak bisitariei ostaturak ematea

Ostatura urte osoan egongo da irekita, bi (2) hilabete naturaleko epean izan ezik (urtarrilean eta otsailean). Egun horiek esleipendunaren eta Gipuzkoako Parketxe Sareak izendatutako arduradunaren arteko akordioaren bidez aldatu ahal izango dira.

- Banaka zein taldean doazen pertsonen ostaturak irekiko eta itxiko zaie, ostaturak har dezaten. Horretarako, beharrezko informazio guztia emango zaie.

- Egunak dituen 24 orduetan derrigorrezkoa izango da balizko premiei erantzuteko telefono bidezko artapena eta larrialdiren bat dagoenean ostatuko arduradun bat 15-30 minututan bertan izatea.

- Esleipenduna Ostatuaren, Parketxearen eta Aralar natura-parkeko gainerako tokien erabilerei (baimenduak eta debekatuak) lotutako informazioa, bisitaldiak eta ibilbideak, aholku orokorrak, zerbitzuen kokapena eta abar bisitarien arduratuko da.

- Esleipendunak bisitari kopuruaren eta moten kontrola egingo du, baita publikoari eskainitako elementu edo zerbitzu bakoitzaren erabilerarena ere. Horretarako, esleipendunak fitxa bat proposatu beharko du eta Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren onarpena beharko du.

- Ostatuko eta Aralar natura-parkeko erabiltzaileen gustuak eta iritziak ezagutzeko eta etorkizuneko jarduerak haiei zuzentzeko, bisitariari Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak edota Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneke Zuzendaritza Nagusiak egokitzat jotzen dituzten galdetegiak banatuko zaizkie eta, ondoren, bildu egingo dira.

- Esleipendunak informazio, interpretazio eta hedapen materialaren inbentarioa egin eta irteera eta sarrera guztiekin eguneratuko du, eskuz eta informatikoki.

Esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari aipatutako materialen izakinak agortzeko zorian daudela jakinaraziko dio, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak berriz eskuragarri jartzeko astia izan dezan. Halaber, esleipendunak txostenean material bakoitzaren arrakasta, onarpena eta bisitarien nola balioesten duen adieraziko du, eta proposamenak egingo ditu.

- ERRESERBAK

Erreserbak urte osoan zehar egin ahal izango dira, baliabide telematikoen baten bidez (e-postaz, web orri baten bidez) edota telefonoz.

Berebat, irekita dagoen hilabete, egun eta orduetan ostatuan bertan nahiz hara telefonoz deituta erreserbak egin ahal izango dira.

- BISITARIEI OSTATU EMATEKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Bisitarien ostatu hartzeko aukera hamar hilabetetan eskainiko da, martxotik-abendura (biak barne) hain zuzen.

Asteko egutegiari dagokienez, ostatua asteazkenetik igandera, biak barne, egongo da irekita.

Gosariak goizeko 8etatik 10etara emango dira.

Goizeko 11etatik aurrera gelak hustu beharko dira, garbiketa lanak egin ahal izateko.

Aldez aurretik tokia erreserbatu ez duen publikoari dagokionean, ondoko hau izango da ostatuaren gutxieneko artapen eskaintza:

* Uztailetik irailera (biak barne), asteazkenetik igandera, 13:00etatik 19:00etara.

* Urritik abendura (biak barne) eta martxotik ekainera (biak barne), ostiraletan, larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan 13:00etatik 19:00etara

- Adierazitako gutxieneko ordutegiari kalterik egin gabe, enpresa lizitatzailleek artapen ordutegi hori zabaldu edo hobetu ahal izango dute, kontrataziorako Klausula Administratiboen Pleguak adierazitakoaren arabera. Kontratua esleitzeko lehiaketan kontuan hartuko dira hobekuntza proposamen horiek.

Aterpetxean aldez aurretik tokia erreserbatu duen publikori doakionez, ondoko hau izango da ostatuaren gutxieneko artapen eskaintza:

* Martxotik-abendura (biak barne), asteazkenetik igandera, biak barne, 10etatik (goizeko hamarretatik) 20etara (iluntzeko zortzietara).

- Adierazitako gutxieneko ordutegiari kalterik egin gabe, enpresa lizitatzailleek irekitze ordutegi hori zabaldu edo hobetu ahal izango dute, kontrataziorako Klausula Administratiboen Pleguak adierazitakoaren arabera. Kontratua esleitzeko lehiaketan kontuan hartuko dira hobekuntza proposamen horiek.

Aldez aurretiko erreserben kudeaketari dagokionean, eta, oro har, ostatuaren funtzionamenduaren arloan, esleipendunak Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailak argitaraturiko 200/2013 Dekretua, uztailetik 9koa, turismo-ostatuak antolatzen dituen aintzat hartuko du.

- EKARBIZITZA ARAUDIA

Esleipendunak ostatu guztietan ohikoa den elkarbizitza araudia prestatu eta proposatuko du, Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioak onartu beharko duena.

Ostatuaren dinamizazio programa

- Ostatuan egin beharreko jardueren artean Dinamizazio Programa garrantzitsua da, eta esleipendunak diseinatu eta gauzatu beharrekoa da.

Esleipendunak bisitariak erakartzeko kanpainak diseinatzeaz, antolatzeaz eta gauzatzeaz arduratu beharko du (elkarte eta taldeekin harremanetan jartzea eta informazioa ematea, bisitaldien xehetasunak zehazteko; informazioa, gutunak eta abar bidaltzea).

- Esleipendunak aurkeztu beharreko programak, gutxienez, honako datuok jaso beharko ditu:

- ✓ Esleipendunak lanak egiteko oinarritzat hartuko dituen helburu espezifikoak eta metodologia zehatza, maila operatiboan azalduta.
- ✓ Dinamizazio Programaren etengabeko berrikuspena burutzeko nahiz lorturiko emaitzen eta ikusten diren aukera berrien arabera jarduera berriak proposatzeko/sortzeko modua

Esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak lan programaren gainean egiten dituen iradokizunak edo aldaketak onartu beharko ditu, baita Dinamizazio Programaren etengabeko berrikuspenetik nahiz lorturiko emaitzen eta ikusten diren aukera berrien arabera jarduera berriak proposatzeko/sortzeko eginbeharretik datozenak ere.

- Esleipendunak ingurumen hezkuntzaz, turismoaz, kulturaz eta ingurumen naturalaren erabilerarekin lotutako gainerako jardueraz arduratzen diren udaleko, eskualdeko edo probintziako erakundeekin harremanetan egon beharko du, dinamizazio programa gauzatzeko aldera. Bestalde, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari harremanen egoeraren berri emango dio. Atal honetan Goierriko turismoaren eta natura eskaintzaren arloan lan egiten duten eragileek lehentasuna izango dute.

4.- BEHARREZKO LANGILEAK

- Esleipendunak behar bezala trebatutako eta prestatutako langileak izan beharko ditu, lanak zorrotasunez eta segurtasunez gauzatu ahal izateko. Langileek guztiek ostatuak bisitariari jakinarazi beharreko edukiak eta informazioa eta horretarako tresnak edo baliabideak ezagutu beharko dituzte.

- Esleipendunak langile kopuru egokia izan beharko du ostatuak kalitate maila egokia ematen duela bermatzeko.

- Esleipendunak aldezturik proposatu beharko ditu langileak, hasi aurretik eta aldi baterako edo ondorengo ordezkapenen kasuan, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren onarpena beharko dute.

- Esleipendunak edo horren mendeko pertsonak jardueraren funtzionamendu egokia eragozten duten edo lan programak ez betetzea eragiten duten egintzak eginez gero edo ez egiteagatik ondorio bera eraginez gero, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak esleipendunari eginkizunak behar bezala betetzeko neurri zehatzak eta eraginkorrak har ditzala eskatu ahal izango dio.

- Publikoaren aurrean lan egiten duten langileek EAEko bi hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa izan beharko dute, bisitariekin bi hizkuntzetan harremanetan aritu ahal izateko.

- Ostatuan lanean ari den pertsona orok larrialdi planak aplikatzeko modua izan beharko du eta lehen laguntza arloko ezagutza izan beharko du.

- Lanaren ikuspuntutik, langileak esleipendunaren mende egongo dira. Esleipenduna arduratuko da gizarte soldata, zerga behar eta segurtasun eta higiene baldintza guztiak betetzeaz, baita aplikagarriak diren Erantzukizun Zibileko aseguru ez ere. Behar horiek ez betetzeak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari nahiz zentroaren jabeari (Gipuzkoako Foru Aldundiari) ez diete erantzukizunik sortuko.

- Eginkizunak plegu honetan lanaldiei eta ordutegiei buruz adierazitakoaren arabera beteko dira. Dena den, horiek egokitzeko aukera egongo da, lanak gauzatzean sortzen diren beharren arabera; betiere, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak oniritzia ematen badu, berariaz eta idatziz.

- Langileek behar bezala jantzita lan egin beharko dute. Horretarako, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak zehaztutako jantziak eramango dituzte, eta txartela edo beren burua identifikatzeko bestelako elementuak ikusgai eraman beharko dituzte. Halaber, enpresa esleipendunaren bereizgarria eraman ahalko dute, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioarekin alde zuzenetik hitzartutako tokian.

- Enpresa esleipendunaren langileak beren kabuz edo enpresak beren eskura jarritako garraioidea erabilia joango dira ostatura. Joan-etorrietarako behar duten denbora zehaztutako lan ordutegitik kanpo dago.

- Enpresa esleipendunak Laneko Segurtasun eta Higie Planaz aztertzeko, diagnostika egiteko, sortzeko eta gauzatzeko ardurak izango du, indarrean dagoen araudiari jarraiki.

5. GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN KONTURAKO GASTUAK

- Ostaturiko eraikineko instalazioetako mantentze-konponketak.

- Ostaturiko instalazioetako elementuen (argiztapen eta beroketa sistemak, altzariak eta abar) mantentze-konponketak, salbu ekipamendua kalteku bada esleipendunak gaizki erabili duelako edo ez duelako ondo zaindu. Horrelakoetan, esleipendunak kontratua hasterakoan bere esku jarritako ekipamendua ordezkatzeko du, antzeko kalitatea daukan beste batekin (ikus 1 eranskina). Izan ere, esleipendunak behar bezala zaindu behar ditu haren eskura jarritako ekipamenduak. Halaber, esleipendunaren iraunaldia amaitutakoan, esleipendunak aldatu beharko ditu, bere kontura, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren iritziz kalteku dauden materialak eta instalazioak.

- Ostaturiko instalazioetako kontsumoak (telefonoa eta abar).

- Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari dagokio ostaturiko behar den material suntsikor guztien hornikuntza, dibulgaziozko materiala barne.

6. ESLEIPENDUANREN KONTURAKO GASTUAK

- Parketxearen eraikinaren garbiketa.

- Esleipendunak bere esku jarritako instalazioen eta ekipamenduaren (ikus 1 eranskina) funtzionamendu eta kontserbazioa egoera egokian mantendu beharko ditu. Hala, Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren ustez esleipendunak gaizki erabili dituelako edo egoki mantendu ez dituelako akatsak dauzkaten materialak eta instalazioak esleipendunak berak berritu beharko ditu.

- Ostatuko eraikineko instalazioetako garbiketa, eta instalazio horietan eginkizunak behar bezala betetzeko behar diren gainerako elementuak garbitzeko gastuak.

- Sortutako hondakinak gestionatzea.

- Tabernan gosariak, bazkariak eta afariak eskaintzeko beharrezkoa izango den janari-hornidura, haien prestakuntza eta horretarako erabilitako baliabide eta tresneriaren garbiketa.

- Ostatuan erabiliko diren izara, estalki, oihalen (toallen) eta gainetikoen garbiketa.

7.- PUBLIKOARI ESKAINITAKO ZERBITZUAK KOB RATZEA ETA MERCHANDAISINGA

- Ostatuaren erabilerak diru-sarrerak sortuko dituzte, erabiltzaileei taberna eta ostatu zerbitzuengatik eskatzen zaizkien prezioengatik. Hortaz, ostalaritza zerbitzuek eskubide ekonomikoak emango dizkiote esleipendunari; eskubide horiek zerbitzuen erabiltzaileek ordaindu behar dituzten tarifen arabekoak izango da. Horretarako, esleipendunak publikoari eman beharreko zerbitzuen prezioen proposamena aurkeztuko dio Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari, onar dezan. Zerbitzu horiek zuzenean ordainduko dizkiote erabiltzaileek esleipendunari.

Salneurriek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1/2015 foru dekretuan –otsailaren 5eko 5/2019 Foru Dekretuak aldatuta- biltzen direnak ezingo dituzte %50ean baino gehiago gainditu.

Esleipendunaren ardura izango da prezioen kobrantza likidatzea eta kudeatzea. Esleipendunak kobrantza horiek kudeatuko ditu, esleipendunaren izenean eta bere kontura.

Bestalde, esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari hileru, ostatuko aurreko hilabeteko memoria ekonomikoa bidali beharko dio.

- Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak, nahiz Ataungo Udalak bisitariarentzat argitalpen informatiboak, interpretaziozkoak edo dibulgaziozkoak edo merchandaising materialak salgai jartzen baditu, esleipenduna arduratuko da horiek saltzeaz eta horren bidez lortzen dituen diru-sarrerak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioarekin nahiz Ataungo Udalarekin likidatuko ditu, erakunde horiek erabakitzen duen moduan.

- Beste edozein produktu saltzeko, aurretik Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren baimena beharko da. Elikaduraren arloko produktuen kasuan, osasun berme guztiak eduki beharko dituzte.

8. PUBLIKOARI EMANDAKO ZERBITZUAK ORDAINTZEA ETA ERRENTAMENDU KANONA

Aurreko puntuan adierazten den bezala, taberna eta ostatu zerbitzuek eskubide ekonomikoak emango dizkiote esleipendunari; eskubide horiek zerbitzuen erabiltzaileek ordaindu behar dituzten tarifen arabera izango da. Zerbitzuak zuzenean ordainduko dizkiote erabiltzaileek esleipendunari.

Enpresa esleipendunak prezio bat ordainduko dio Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari ostatua idazki honetan biltzen diren baldintzetan erabiltzen uzteagatik, modu honetan:

Esleipendunaren proposamenaren arabera izango den zenbateko bat, urtean 1.800 euro (BEZ barne), edo, bestela esanda, hilean 150 euro baino txikiagoa izango ez dena. Zenbateko hori hileko lehen hamar egun naturalen barruan ordaindu behar da, kontratuak irauten duen denboran.

9.- ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHAR ETA ESKUBIDE BATZUK

- Esleipendunak lan saiaria egin beharko du, bai publikoari eskaintzen dizkion zerbitzuei dagokienez, bai langileen jantziei dagokienez.

Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak lanak eteteko agindua eman ahal izango du eta, hala badagokio, ixtekoa, zerbitzu hori eskasa bada, edo erabiltzaileen osasun, higiene eta segurtasunerako beharrezko neurriak betetzen ez baditu.

- Esleipendunak ostatuaren arreta eta dinamizazioa berak bere kabuz beteko duela hitz emango du eta debekatuta egongo da hura, osorik edo haren zati bat, azpikontratatzea Gipuzkoako Parketxe Sareak espresuki eta idatziz onartzen ez badu. Baldintza hau beteko ez balitz, Fundazioak kontratua alde bakar batez deusezta lezake, esleipendunari kalte-ordaina eman beharrik izan gabe.

- Ostatuko mota guztietako ekipoak lizitazio honen helburu diren zeregin eta funtzioak betetzeko bakarrik erabiliko dira.

- Esleipendunak prezioak, oharrak eta abar jendaurrean jarriko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetan. Era berean, esleipendunak bisitariei arreta bi hizkuntzetan bermatuko die. Arreta hori frantsesez eta ingelesez ere emateko aukera kontuan hartuko da.

- Esleipendunak ezingo du salgai dauden produktuen publizitatearekin lotutako iragarkirik edo pegatarik itsatsi instalazioetan edo altzarietan Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren baimenik gabe.

- Esleipendunak ezingo du obrarik egin Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimenik gabe.

- Esleipendunak kexa-liburua bezeroen esku jarriko du, baita iradokizun liburu bat ere.

- Pertsonaren bat galtzen bada edo istripuren bat gertatzen bada, esleipendunari zaintza langileek erreskateetan lagun dezatela eskatu ahal izango zaio.

- Esleipendunari Aralar natura-parkean edozer jardueratan edo kudeaketa neurritan laguntzeko eskatu ahal izango zaio eta, bereziki, hirugarrenak laguntzea, ikerketak, datu-hartzeak, filmazioak, erreportajeak, eta abar egin behar badituzte.

- Esleipendunari Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak egokitzat jotzen dituen administrazio lanetan laguntzeko eskatu ahal izango zaio, adibidez, hirugarrenei (ikastetxeak eta abar) datuak edo mezuak bidaltzea.

- Esleipendunak erabateko sekretu profesionala gordeko du, lortutako informazioa lan hau ondo betetzeko bakarrik erabiliz. Informazio hori Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren jabetzakoa izango da, bakar-bakarrik, eta ezingo da beste inongo helburutarako erabili, berariazko baimen idatzirik eduki gabe.

- Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa ez da esleipendunak erabateko erantzukizun tekniko eta legalarekin kontrolatu, proiektatu, informatu edo kalkulatu duenaren erantzule izango. Esleipendunak kontratu honen helburua den lana erabat gauzatzeko behar beste langile egoki eta dagokien tituluaren jabe eduki beharko ditu.

- Esleipendunaren ardura izango da lana ongi egiteko beharrezko informazio guztia lortzea proposaturiko lanak egiteko, eta horretan ezingo du aitzakia gisa erabili aurreikusi baino denbora gehiago edo zailtasun handiagoak dituela, ezta aurrekontua handitu beharra ere.

- Esleipendunari dagokio lan hau egiteko behar diren baimenak eta lizentziak lortzea, bai ofizialak, bai partikularrak, indarrean dagoen legediari jarraiki.

10.- EPEA

Kontratua URTEBETERAKO izango da eta beste LAU (4) urtez luzatu ahal izango da, alderdiak ados jartzen badira. Luzapen bakoitzaren epea urtebetekoa izango da.

11.- BARNE ETA KANPO KOMUNIKAZIOAK

- Lanaren hasieran, jarraipen batzorde bat sortuko da eta bilera maiztasun jakin bat finkatuko da, esleipendunak lanen martxari buruzko informazioa eman dezan.

- Ohiko bilerez gain, esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioarekin harremana izango du eta bilerak egingo ditu, ongi koordinatzeko eta lanean ari dela sortzen diren arazoak aztertzeko. Esleipendunak bilera guztietan adostutakoa idatziz

jasoko du eta aktak idatziko ditu. Akta horiek Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari helaraziko dizkio.

- Esleipenduna behartuta egongo da Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak egokitzat jotzen dituen aldaketa guztiak onartzera eta lanetan txertatzera.

- Esleipendunak, eginkizunak betetzen dituen bitartean, ostatuaren kudeaketari buruz egiten dituen komunikazio guztiak aurretik Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari helarazi beharko dizkio, onar ditzan, eta komunikazioak azken horrek zehazten dituen euskarriak erabiliz egin beharko dira.

- Halaber, eraikinetako identifikazio eta seinalizazio elementu guztiek, paperezkoek eta irudia barne har dezaketen gainerako euskarriek Aralar natura-parkearen irudia islatu beharko dute, baita Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren logotipoa edo azken erakunde horrek zehazten dituen bestelako bereizgarriak ere.

12.- ETENGABEKO EBALUAZIOA

- Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak publikoari emandako zerbitzuei buruzko etengabeko ebaluazioa egingo du, funtzionamenduaren kalitate maila ikusteko. Horretarako, beharrezkotzat jotzen dituen jarduera guztiez gain, esleipendunak hiru hilabete behin, eta hurrengo hileko lehenengo hamabostaldian, aurreko hiruhilabeteko lanen garapenari buruzko Memoria Tekniko bat helarazi beharko dio, eta memoria horretan ondokoak barne hartu beharko ditu, gutxienez:

- ✓ Aurkeztutako proiektuaren arabera gauzatutako jarduerak eta bestelakoak.
- ✓ Ostatuko erabiltzaileei buruzko datuak, jarduera bakoitzeko partaideak eta taldeak zehaztuta, baita ostatu hartutako pertsonak, bisitariak eta abar ere. Gainera, publikoari eskainitako zerbitzuak hileko zein egunetan erabili dituzten ere jaso behar da.
- ✓ Erabiltzaileek jarduerak hobetzeko edo dibertsifikatzeko egindako iradokizunak.
- ✓ Publikoari eskainitako zerbitzuetatik eratorritako diru-sarreraren eta gastuen hileko kontuak.

- Urtero, bukaerako memoria bat entregatuko da. Memoria horretan, sortutako informazio guztia bilduko da, baita urtean zehar egindako zeregin eta lan guztien deskribapena ere. Gainera, ostatua ongi kudeatzeko interesgarrientzat jotzen direnak proposatuko dira.

- Urtero, ekitaldi bakoitzeko urtarrilean, esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari ostatuko instalazioetan dauden mota guztietako materialen (suntsikorrak eta ez suntsikorrak) izakinei buruzko zerrenda aurkeztuko dio, aipatutako ekitaldirako eskuratu beharreko materialaren aurreikuspena barne.

- Esleipendunak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari edozein unetan lanen gauzatzeari buruzko ikuskaritza teknikoa egiten utziko dio, funtzionamendua pleguan eta indarrean dauden xedapenetan aurreikusitakoarekin bat datorren egiaztatzeko.

Esleipendunak ikuskaritza lana erraztu beharko du, eskatzen dioten informazio guztia emanaz eta Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioari laneko gertakari guztien berri emanaz.

I. ERANSKINA

INBENTARIOA

LOGELETAKO ALTZARIAK	MODELOA / NEURRIA	KOPURUA
Ohatzea	90 cm	18
Koltxoia	90 cm	40
Litera	90 cm	2
Ohea	105 cm	1
Koltxoia	105 cm	1
Burkoa		41
Mahaia	46,5 x 86	2
Ohe azpiko kutxatilategia	177 x 30 x 50	36
Armairua	200 x 106 x 60	2
Paperontzia	Handia	1
Edredoia	150	36
Eserlekua	Eina modelo	8
Mahaia	120 x 80	1
Paperontzia		4
Sabaiko lanpara		

IKUS-ENTZUNEZKOAK	MODELOA / NEURRIA	KOPURUA
Antena parabolikoa	Deskodetutako gabe	1
Maketa	Aralarko Parkea 340 x 165	1
Pantaila (LCD 52")		1
Monitorea (LCD – TFT SOLTEC 15")		4
Altzairuzko trackball		4
Aretoko audio sistemak		2
Gune interaktiboak		4
Proiektagailua (4000 ANSI lumen)		1
Pantaila (LCD 42")		1
WESC entzungailua		4

BAINUGELAKO OSAGARRIAK	MODELOA / NEURRIA	KOPURUA
Ispilu angeluzuzena	78 x 62	2
Ispilu angeluzuzena	110 x 40	2
Bainugelako ispilua	Sotoa eta apartamentua	2
Dutxarako gortina	Apartamentua	1
Paperontzia		6
Xaboi euskarria		6
Komuneko paperaren euskarria		7
Eskuak lehertzeko paperaren euskarria		6
Eskuila		7
Bi hodi fluoreszentedun lanpara (59 W)		2
Iltzea		6

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK	NEURRIA	KOPURUA
Kutxa izozkailua	461 litro	2
Kutxa hozkailua	282 litro	2
Kutxa izozkailua	239 litro	1
Armairu hozkailu aireztatua	663 litro	3
Hozkailua	360 litro	1
Mikrouhin labea	369 x 390 x 240 mm	1
Gas sukaldea, altzairu herdoilgaitzezkoa, 4 erregailurekin eta labearekin		1
Gas plantxa, altzairu herdoilgaitzezkoa, eta plantxa leun kromatua	Plakaren azalera: 43 dm ² . Beheko altzaria: 700 x 750 x 560 mm, 2 aterekin	1
Elementu neutroa, altzairu herdoilgaitzezkoa	350 x 750 x 290 mm	1
Gas frijigailua, altzairu herdoilgaitzezkoa	30 (2 x 15) litro	1
Ke kanpaia, altzairu herdoilgaitzezkoa	2.000 x 2.000 mm	1
Ontzi garbigailua, gasezkoa eta altzairu herdoilgaitzezkoa	650 x 600 x 900 mm	1
Garbitu aurreko mahaia, harraskarekin	1800 x 700 x 900 mm	1
Kafe makina, gasezkoa eta altzairu herdoilgaitzezkoa	Galdararekin edukiera: 13 litro	1
Kafe errota	Toberaren edukiera: 2 kilo	1
Kafe errota	Toberaren edukiera: 0,6 kilo	1
Mahaia, konketarekin	1800 x 650 x 900 mm	1
Mahaia, harraskarekin	4050 x 750 x 900 mm	1
Mahaia, harraskarekin	4000 x 700 x 900 mm	1
Mahaia	475 x 900 x 900 mm	1
Erakusmahaia	2400 x 600 x 1050 mm	1
Erakusmahaia, eskuadra formakoa	(3600 x 2400) x 600 x 1150 mm	1

SUKALDEKO TRESNAK	MODELOA / NEURRIA	KOPURUA
Lapiko garai herdoilgaitza	28 cm	1
Lapiko garai herdoilgaitza	24 cm	2
Lapiko garai herdoilgaitza	20 cm	1
Lapiko baxu herdoilgaitza	32 cm	1
Eltze zilindriko herdoilgaitza	32 cm	1
Laberako erretilu herdoilgaitzak	Angeluzuzenak	4
Zopa ontzi herdoilgaitzak		4
Xukadera herdoilgaitza		1
Burruntzali herdoilgaitza		12
Bitsadera (armiarma) herdoilgaitza		1
Bitsadera herdoilgaitza		2
Hiruhortz herdoilgaitza		2
Ogi saskia, zumezkoa		5
Txarro herdoilgaitza	Kafea eta esnea	2

Txarro herdoilgaitza	Ura	2
Erretilu obalatu herdoilgaitza		2
Porroia		1
Itsas erretilu obalatu zuria	40 cm	12
Itsas erretilu obalatu zuria	34,3 cm	8
Kafea hartzeko itsas katilu zuria	10 cl	22
Kafea hartzeko itsas platertxo zuria	11,75 cm	22
Kontsomea hartzeko itsas katilu zuria	28,5 cl	20
Kontsomea hartzeko itsas platertxo zuria	14,5 cm	20
Sukaldeko trapu urdina	58 x 58	12
Sukaldeko trapu zuri glaziarra	50 x 50	12
Erretzeko herdoilgaitza, helduleku mugikorarekin	45 x 33 x 7 cm	2
Zerbitzarietzako erretilu herdoilgaitza	40 cm	2
Erretilu obalatu herdoilgaitza	35 cm	4
Erretilu obalatu zokona	40 x 26 cm	1
Erretilu obalatu herdoilgaitza	45 cm	4
Chef eltze zilindriko herdoilgaitza, aluminiozko hondoarekin	28 cm	1
Chef eltze zilindriko herdoilgaitza, aluminiozko hondoarekin	24 cm	2
Chef eltze zilindriko herdoilgaitza, aluminiozko hondoarekin	20 cm	2
Chef lapiko garai herdoilgaitza, aluminiozko hondoarekin	36 cm	2
Chef lapiko garai herdoilgaitza, aluminiozko hondoarekin	32 cm	2
Chef paella ontzi herdoilgaitza, aluminiozko hondoarekin	36 cm	2
Chef lapiko baxu herdoilgaitza, aluminiozko hondoarekin	20 cm	2
Chef ontzi zuzen baxua, herdoilgaitza, aluminiozko hondoarekin	24 cm	2
Chef ontzi zuzen baxua, herdoilgaitza, aluminiozko hondoarekin	20 cm	2
Paella ontzi valentziarra, leundua	40 cm	2
Paella ontzi valentziarra, leundua	30 cm	2
Ez itsasteko zartagina, burdinazko eskulekuarekin	32 cm	2
Ez itsasteko zartagina, burdinazko eskulekuarekin	24 cm	1
Ez itsasteko zartagina, burdinazko eskulekuarekin	20 cm	1
Xukadera koniko klasikoa, herdoilgaitza	40 cm	1
Chef txano herdoilgaitza	26 cm	1
Bola iragazki (1/2) sendotua, herdoilgaitza	25 cm	1
Burruntzali txiki herdoilgaitza	12 cm	1

Burruntzali txiki herdoilgaitza	10 cm	1
Bitsadera herdoilgaitza	12 cm	1
Bitsadera herdoilgaitza	08 cm	1
Armiarma herdoilgaitza	16 cm	1
Tipula aiztoa, eskuleku horiarekin	20 cm	3
Hezurra kentzeko aiztoa, eskuleku horiarekin	13 cm	1
Zorrozteko harria	21,5 cm	2
Birrintzailea	Tr-350 (motor multzo berria)	1
Beso birrintzailea	Bn (motor berria)	1
Janaria txikitzeako makina, kuterra, barazkiak mozteko makina	R211	1
Lekale ontzi herdoilgaitza	24cm	4
Erretilu obalatu herdoilgaitza	50 cm	1
Erretilu obalatu herdoilgaitza	45 cm	4
Erretilu obalatu zokon herdoilgaitza	40 x 26 cm	1
Erretilu obalatu herdoilgaitza	35 cm	4
Zerbitzariantzako erretilu herdoilgaitza	40 cm	2
Arrainontzi biribila, zumezkoa	30 cm	4
Arrainontzi biribila, zumezkoa	40 cm	1
Esne txarro herdoilgaitza	200 cl	8
Xanpain botila batentzako pertza	Herdoilgaitza	1
Azukre ontzia, taparekin eta dosifikagailuarekin		4
Ozpin ontzia, gatzontziarekin eta piperrontziarekin	Herdoilgaitza	3
Paretako kortxo-kentzeko automatikoa		1
Piper errota	22 cm	1
Izotz pintza herdoilgaitza	18,5 cm	1
Izozkientzako zali herdoilgaitza, malguki ezkutuekin	60 M/M.	1
Lunch sardexka	Herdoilgaitza	24
Azkenburuetarako aiztoa	Herdoilgaitza	24
Kortxo-kentzekoa, bi bultzadakoa (oparia)		3
Plater laua, burdin errefraktariozkoa	28 cm	3
Lapiko zokona	17 cm	6
Lapiko zokona	28 cm	1
Presio eltzea, aluminiozkoa	15	1
Xukadera zuria	28 cm	2
Mozteko ohol zuria, polietilenoazkoa	60x40x42	1
Zabor ontzia, tapa beltzarekin	95 litro	1
Biberoi dosifikatzaile gardena	70 cl	2
Biberoi dosifikatzaile zeharrargia	360 g	3
Haragi aihotza	25 cm	1
Arrain aihotz katalana	26 cm	1
Ebakitzeko sardexka	15 cm	1
Motrailua, polietilenoazkoa	20 cm	1
Esku motrailua, polietilenoazkoa	20 cm	1

Erretzeko ontzi herdoilgaitza, helduleku mugikorrarekin	40 cm	2
Chef ontzi zuzena, baxua eta herdoilgaitza, aluminiozko hondoarekin	24 cm	1
Oilaskoa mozteko guraizeak		1

BULEGOKO ALTZARIAK	MODELOA / NEURRIA	KOPURUA
Apalategia	200 x 90 x 40	2
Mahaia	160 x 80	5
Eserlekua	Eina modelo	12
Eserlekua	Siamdar besaulkia	2
Paperontzia		1
Lanparak	Ezarkinak: piramide alderantzikatuak	4
Panela		3
Mahai biribila	144ko diametroa	1
Apalategia	225 x 90 x 35	1
Armairu txikia	57 x 50 x 35	1

SUKALDEKO ALTZARIAK	MODELOA / NEURRIA	KOPURUA
Apalategi herdoilgaitza, lau apalekin	120 x 200 x 40	2
Apal herdoilgaitza	120 x 40	3
Apalategiaren hanka herdoilgaitza		2
U formako altzari herdoilgaitza, estalkiarekin, bi harraskarekin, tiraderekin eta apalekin		1
Armairu garai herdoilgaitza, paretari lotua		1
Lanpara	Bi fluoreszenterekin	2

TABERNAKO ALTZARIAK	MODELOA / NEURRIA	KOPURUA
Egurrezko mahaia	175 x 90	8
Eserleku luzea	175 x 30	12
Erdiko oin mahaia, euskarri metalikoduna	80 x 80 wenge	1
Aulki pilagarri metalizatua	Eserlekua (wenge)	6
Mahai pilagarria, metalezko oinekin	150 x 80	5
Aulki pilagarria, maple eserlekua		23

BESTE BATZUK	MODELOA / NEURRIA	KOPURUA
Terrazarako plastikozko eserlekua		25
PEPSI mahaia		4
Terrazako argia		2
Mahai jokoak	Batzuk	
Haurrentzako liburuak	Batzuk	
Eskailera tolesgarri herdoilgaitza		1
Informazio panelak		6
Pitxer apaingarri txikia		2
Eserlekua	Eina modelo	1

Eserleku luzea	150 x 30	4
Korridoreko apalategia	7 apal	1
Mahaia	85 x 46	1
Apala	Telefono liburutegiko	1
Apaingarria	Egurrezko zenbait modelo	5
Eserlekua	Bulegokoa, gurpilekin	1
Su itzalgailu ABCE 6 kg (gorria)		6
Su itzalgailua CO2 5 kg (tronpa)		3
Armairua, hautsezko su itzalgailua gordetzeko	Metalezkoa	6
Armairua, CO2 su itzalgailua gordetzeko	Metalezkoa	1
Erreferentzia seinalea, 124	170 x 250 mm	9



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

GPS Lizarrustiko kontratuaren PPT esk/cast

CSV/EKS:

SINA3f115a32-16ce-4386-a77f-1dd250fd61e